

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bing bang.
Gasteiz Big Band.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 59'08". 10 euro.

Dantza eragiteko dotorezia eta erreminta guztiak

SORALUZeko diskoetxeko Dantza Biltza bildumako talde hau ez da ohiko big banda eta hori agerian gelditzen da, adibidez, erabiltzen dituzten instrumentuak kontuan hartzen baditugu. Haizezko eta perkusio instrumentuez gain, gitarrak, baxuak eta DJak, besteak beste, protagonismo handia dute. Aurretik hamar hatz beteko bina binilo zuzenean grabatu ostean, oraingoan lan luzea prestatu dute. Basie, Mancini, Hamilton, Norman eta Tito Puente

moduko konposatzaile handien piezak hartu eta horiei tonalitate bereizgarriak gehitu dizkiete. Estiloen entsalada erraldoia aurki daiteke hemen: jazz, bossa, soula, latino, hip-hopa, erritmo elektronikoak, cha-cha-cha... eta emaitza oso-oso beroa da; horra hor, tronpeta soloak, scratchak edo Kuba inguruko perkusio nekazina dantzaren alde egiteko helburuan.

www.myspace.com/gasteizbb

Jimmy Bidaurreta - Gasteiz Big Band

«Ez dugu big band klasikoen soinua izan nahi, gaur egungo tendentziak erabiltzen ditugu»

Zure eskura big band bat edukitzea, hainbeste musikari eta instrumenturekin, ametsa da, ezta?

Bai, baina aldi berean gaur egungo garai zailetan halako talde handia osorik eta lanean edukitzeak buruko min handiak ematen ditu. Hala ere, talde honen makinaria indar betez dagoenean esperientzia errepikazina da; ez dago horren antzekorik.

Zer dauka Gasteiz Big Bandek beste big band batzuek ez dutena? Ausardia? Aurreiritzi eza?

XXI. mendean egotearen pertzepzioa dugu eta gaur egun eskura dauden erreminta eta tendentziak erabiltzen ditugu emaitza borobiltzeko. Bestalde, ez dugu big band klasiko baten soinu bera izan nahi.

Zer izan behar du kanta batek zuek moldatu ahal edo nahi izateko?

Abesti bat izatea eta ez suite bat. Suitea generoko ohiko forma da, jazzetik musika klasikoaren pareko



seriotasuna lortu nahi duena. Gure soinu apustua poperoagoa da, nolabait esateko.

Kuriositatez, kanta bat entzuterakoa berehala dakizu nola moldatu nahiko zenukeen?

Oso garrantzitsua da lehenengo minutuan bertan bertsoaren enfo-

kea oso argi izatea. Askoz errazagoa da norabidea aldatzea bizikletan zoazela, transatlantikoan baino; eta gure kasuan ez da erraza ontzia mugitzea.

Tradizioa apurtzeko eta eraldatzeko dago eginda?

Quantic izeneko musikariak *Tradición en transición* (Tradizioa trantsizioan) diskoa kaleratu zuen. Ideia horrek laburtzen du fenomeno baten garapen naturala, non ezagutzatik eta errespetutik abiatuta, denborak zehazten du zerk eusten duen eta zer ekarpen berri gehitzen diren. Bestalde, ez dago inongo eragozpenik esperimentatzeko, erratzeko, ezta asmatzeko ere.

Muturreraino daramazue musika dantzatzeko dela dioen ideia?

Hasiera batean halako taldeen helburua hori zen; hortaz, gure soinuak hain modernoa dirudien arren, musikaren berezko helburuaren alde egiten dugu. ■